

**ACTA N° 2/2013**

**SEÑORES/AS ASISTENTES**

**ALCALDE**

D. OSKAR MARTÍNEZ ZAMORA. (EAJ-PNV)

**SRS./AS TENIENTES DE ALCALDE**

D. IÑAKI IZAGIRRE DÍAZ	(EAJ-PNV)
D <sup>a</sup> NAGORE DE PABLOS BUSTO	(EAJ-PNV)
D. BORJA CRISTÓBAL PEÑA	(EAJ-PNV)

**SRS./AS CONCEJALES/AS**

D. SAULO NEBREDA TREBEJO	(EAJ-PNV)
D. ALBERTO MARINERO CUADRA	(PSE-EE)
D. OSCAR SALICIO REGO	(PSE-EE)
D <sup>a</sup> ANA CORIA ALDAY	(PSE-EE)
D <sup>a</sup> IDOIA DEL POZO VIDAL	(PSE-EE)
D. ISRAEL BRULL QUINTANA	(BILDU)
D <sup>a</sup> NEREA HERRERA MARIN	(BILDU)
D. JOSE M <sup>a</sup> VALLE PEREZ	(BILDU)

**SECRETARIO**

D. ALBERTO GABANES RIVERO

**INTERVENTORA**

D<sup>a</sup> IZASKUN SARASOLA GONZÁLEZ

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Ortuella, siendo las catorce horas del día veinticuatro de Enero de dos mil trece y previa convocatoria al efecto, se reúnen bajo la Presidencia del Sr. Alcalde, D. Oskar Martínez Zamora, los Concejales al margen expresados, con el fin de tratar los asuntos comprendidos en el Orden del Día y de todo ello da fe el Secretario D. Alberto Gabanes Rivero.

**1º APROBACIÓN, SI PROCEDE DEL ACTA DE LAS SESIONES CELEBRADAS LOS DIAS 27 DE DICIEMBRE DE 2.012 Y 24 DE ENERO DE 2013**

En este punto el Sr. Alcalde pregunta a los Sres. Asistentes si tienen algún reparo que oponer a las Actas que se traen a aprobación, correspondientes a las sesiones celebradas los días 27 de Diciembre de 2.012 y 24 de Enero de 2.013.

No produciéndose ninguna intervención se adopta por unanimidad el siguiente:

**PRIMER ACUERDO:** “Aprobar las actas de la sesiones celebradas los días 27 de Diciembre de 2.012 y 24 de Enero de 2.013”

**2º APROBAR LA PROPUESTA DE PRORROGA DE EBPN (PLAN GENERAL DE PROMOCIÓN DEL USO DEL EUSKERA)**

En este punto del Orden del Día se procede por parte del Sr. Kristobal (EAJ-PNV) a exponer la propuesta.

Teniendo en cuenta el dictamen de la Comisión de Euskera.

Visto el informe emitido por el Técnico de Euskera, que es textualmente como sigue:

**INFORME TÉCNICO DEL SERVICIO DE EUSKERA SOBRE LA PROPUESTA DE PRORROGAR EL EBPN Y EL PLAN DE UTILIZACIÓN DE EUSKERA DEL AYUNTAMIENTO DE ORTUUELLA.**

**KARLOS GONZÁLEZEK, ORTUPELLAKO UDALEKO EUSKARA TEKNIKARIAK, HONAKO HAU JAKINARAZTEN DU:**

**KARLOS GONZÁLEZ, TÉCNICO DE EUSKERA DEL AYUNTAMIENTO DE ORTUUELLA, INFORMA:**

Euskara Zerbitzuak 2013ko urtarrileko Osoko Bilkurari proposatu nahi diola 2012ko abenduaren 31ra arte indarrean egon diren euskara plan biak luzatzeko.	Que el Servicio de Euskera del Ayuntamiento quiere proponer al Pleno la prórroga de los dos planes de euskera que han estado en vigor
--	---

<p>Izan ere, 2013an udaletako euskara planen plangintzaldi berria hastekoa bada ere, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako emaitzen ondorioz gobernu aldaketa etorri da, aurreko plangintzaldiaren gaineko ebaluazioa egin gabe eta ondorioz, orain hastekoa den plangintzaldirako irizpideak, helburuak eta jarraibideak argitu gabe.</p> <p>Eusko Jaurlaritzaren aldatetaren ondorioz, HPSko egitura eta zuzendaritza une honetan ari da berritzen eta lantaldea osatu arte eta eurek nondik jo argitu artean ez da erraza plan berriak diseinatu eta onartzea.</p> <p>Gainera, Euskara Zerbitzuak berak ez du izan astirik ez modurik indarrean egon diren plan biak ebaluatzeko eta aurrekoen ebaluazioa eta hortik ateratako ondorioak izaten dira plan berrien diseinuaren abiapuntua.</p> <p>Beraz, esandakoa kontuan hartuta, luzatzeko proposamena onartzeko proposatzen dugu, geure aldetik plan biak baloratzeko konpromisoa hartuz.</p>	<p>hasta el 31 de diciembre del 2012.</p> <p>En el 2013 aunque debe empezar el nuevo periodo de planificación, como consecuencia de los resultados de las Elecciones al Parlamento Vasco ha venido el cambio de gobierno, sin que se haya hecho la evaluación final del anterior periodo de planificación (2008-2012) y debido a ello, sin que nos hayan aclarado desde el Gobierno Vasco cuales son los criterios, objetivos y orientaciones a seguir en el nuevo periodo de planificación.</p> <p>Como consecuencia del cambio de Gobierno Vasco, la estructura y la dirección de VPL (Viceconsejería de Política Lingüística) se está renovando en estos momentos y hasta que se conforme el nuevo grupo de trabajo y hasta que decidan cuales van a ser las prioridades del nuevo periodo de planificación, no es fácil diseñar y aprobar los nuevos planes de euskera.</p> <p>Además el Servicio de Euskera no ha tenido ni tiempo ni modo de evaluar los planes que han estado en vigor y la evaluación de los planes anteriores y las consecuencias que se sacan de la evaluación suelen ser los puntos de partida en el diseño de los nuevos planes.</p> <p>Por tanto, teniendo en cuenta todo lo expuesto proponemos que se apruebe la propuesta de prórroga, cogiendo por nuestra parte el compromiso de hacer la valoración de ambos planes.</p>
--	---

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, adopta el siguiente:

**SEGUNDO ACUERDO:** Solicitar al Gobierno Vasco la prórroga del Plan General de promoción del uso del Euskera.

Con carácter previo a la adopción del acuerdo se produce la siguiente intervención:

Herrera Andreak (BILDU) esaten du aztergai zerrendaren puntu bi hauei (hauxe eta aurrekoa) buruzko bere iritzia berbera dela. Proposamenarekin ados daude baina pentsatzen dute euskararen erabilera eskoletatik kanpo ere sustatu beharko litzatekeela, hala nola, euskararen erabilera irizpide moduan kontuan hartzea udal kontratuak esleitzerakoan

**3º APROBAR LA PROPUESTA PARA PRORROGAR EL PLAN DE USO DE EUSKERA DEL AYUNTAMIENTO DE ORTUELLA.**

En este punto del Orden del Día se procede por parte del Sr. Kristobal (EAJ-PNV) a exponer la propuesta.

Teniendo en cuenta el dictamen de la Comisión de Euskera.

Visto el informe emitido por el Técnico de Euskera, que es textualmente como sigue:

**INFORME TÉCNICO DEL SERVICIO DE EUSKERA SOBRE LA PROPUESTA DE PRORROGAR EL EBPY Y EL PLAN DE UTILIZACIÓN DE EUSKERA DEL AYUNTAMIENTO DE ORTUELLA.**

**KARLOS GONZÁLEZEK, ORTUELLAKO UDALEKO EUSKARA TEKNIKARIAK, HONAKO HAU JAKINARAZTEN DU:**

**KARLOS GONZÁLEZ, TÉCNICO DE EUSKERA DEL AYUNTAMIENTO DE ORTUELLA, INFORMA:**

Euskara Zerbitzuak 2013ko urtarrileko Osoko Bilkurari proposatu nahi diola	Que el Servicio de Euskera del Ayuntamiento quiere proponer al
--	--

<p>2012ko abenduaren 31ra arte indarrean egon diren euskara plan biak luzatzeko.</p> <p>Izan ere, 2013an udaletako euskara planen plangintzaldi berria hastekoa bada ere, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako emaitzen ondorioz gobernu aldaketa etorri da, aurreko plangintzaldiaren gaineko ebaluazioa egin gabe eta ondorioz, orain hastekoa den plangintzaldirako irizpideak, helburuak eta jarraibideak argitu gabe.</p> <p>Eusko Jaurlaritzaren aldaketaren ondorioz, HPSko egitura eta zuzendaritza une honetan ari da berritzen eta lantaldea osatu arte eta eurek nondik jo argitu artean ez da erraza plan berriak diseinatu eta onartzea.</p> <p>Gainera, Euskara Zerbitzuak berak ez du izan astirik ez modurik indarrean egon diren plan biak ebaluatzeko eta aurrekoen ebaluazioa eta hortik ateratako ondorioak izaten dira plan berrien diseinuaren abiapuntua.</p> <p>Beraz, esandakoa kontuan hartuta, luzatzeko proposamena onartzeko proposatzen dugu, geure aldetik plan biak baloratzeko konpromisoa hartuz.</p>	<p>Pleno la prórroga de los dos planes de euskera que han estado en vigor hasta el 31 de diciembre del 2012.</p> <p>En el 2013 aunque debe empezar el nuevo periodo de planificación, como consecuencia de los resultados de las Elecciones al Parlamento Vasco ha venido el cambio de gobierno, sin que se haya hecho la evaluación final del anterior periodo de planificación (2008-2012) y debido a ello, sin que nos hayan aclarado desde el Gobierno Vasco cuales son los criterios, objetivos y orientaciones a seguir en el nuevo periodo de planificación.</p> <p>Como consecuencia del cambio de Gobierno Vasco, la estructura y la dirección de VPL (Viceconsejería de Política Lingüística) se está renovando en estos momentos y hasta que se conforme el nuevo grupo de trabajo y hasta que decidan cuales van a ser las prioridades del nuevo periodo de planificación, no es fácil diseñar y aprobar los nuevos planes de euskera.</p> <p>Además el Servicio de Euskera no ha tenido ni tiempo ni modo de evaluar los planes que han estado en vigor y la evaluación de los planes anteriores y las consecuencias que se sacan de la evaluación suelen ser los puntos de partida en el diseño de los nuevos planes.</p> <p>Por tanto, teniendo en cuenta todo lo expuesto proponemos que se apruebe la propuesta de prórroga, cogiendo por nuestra parte el compromiso de hacer la valoración de ambos planes.</p>
---	--



Beste agente generiko batzuk	* Alkarbide * Ortuellako eskola batzordea
Adierazleak	* Hartzaile-kopurua * D ereduan matrikulatuko diren haurren kopurua
Aurrekontua	324,36 €

<b>Helburu estrategikoa</b>	<b>1 - Euskara ondorengoetaratzea</b>
<b>Esparrua</b>	<b>1.a - Irakaskuntza</b>
<b>Neurria</b>	<b>1.a.03 - Egitarau zehatzak eratu eskolaz eskola, irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietako harreman-hizkuntza ere izateko, bai eta euskararekiko atxikimendua eta euskaraz bizitzen lagunduko duten ohiturak bultzatzeko ere.</b>

<b>ESTRATEGIAK</b>	<b><u>EKITALDIAK ANTOLATU</u></b> <b><u>ESKAINZA SUSTATU</u></b> <b><u>LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI</u></b>
<b>Egitarau mota</b>	<b><u>A</u></b>
<b>2. Ekintza</b>	<b><u>IKASTETXEENTZAKO 2012ko DIRU-LAGUNTZAK: IKASLEENTZAKO EUSKARAZKO JARDUERAK IKASGELETATIK KANPO ETA EUSKARAREN ERABILERA ETA EUSKARAREN ALDEKO JARRERA POSITIBOAK SUSTATZEKO EKINTZAK IKASTETXEETAN.</u></b>
<b>Azalpena</b>	Iaz ikastetxeentzako diru-laguntzak arautu ostean (oinarriak prestatuz, ikastetxeekin negoziatuz eta Osoko Bilkuran onartu ondoren) eta behar bezalako deialdia landu eta gero, Ortuellako Udal Euskara Zerbitzuak iazko ekitaldiari dagozkion diru-laguntzak lehengo hiruhilabetean izapidetuko ditu urtarrilean ikastetxeon eskabideak jaso ostean.
<b>Udal agente generikoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskara Zerbitzua</li> <li>• Kontu-hartzailetza</li> </ul>
<b>Beste agente generiko batzuk</b>	* Ortuellako Eskola Batzordea * Herriko Ikastetxeak * Berritzegunea
<b>Adierazleak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskarazko ekintza-kopurua</li> <li>• Hartzaile edo parte-hartzaile kopurua</li> <li>• Euskararen erabilera ekintzetan</li> <li>• Oinarrietan ezarritako balorazio-irizpideak</li> </ul>
<b>Aurrekontua</b>	4.293,47 €

<b>Esparrua</b>	<b>1.a - Irakaskuntza</b>
<b>Neurria</b>	<b>1.a.03 - Egitarau zehatzak eratu eskolaz eskola, irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietako harreman-hizkuntza ere izateko, bai eta euskararekiko atxikimendua eta euskaraz bizitzen lagunduko duten ohiturak</b>

bultzatzeko ere.

**ESTRATEGIAK**

**Egitarau mota**

**3. Ekintza**

Azalpena

**EUSKARRIAK ESKAINI**

**A**

**Ikasleentzako 2013/2014ko ESKOLA-AGENDA**

Duela ikasturte bi proiektua Bizkai osora zabaldu ostean, lehengo eta behin, San Felix ikastetxeak proiektuan parte hartzea erabaki zuen. Datorren ikasturterako eskola-agendaren proposamena (egunero poesia tanta bana) Ortuellako Eskola Batzordearen bilera aurkeztu ostean, Otxartagako Herri Ikastetxeak ere parte hartzea erabaki du. Eskola agendak irailean banatuko dira ikastetxe biotako LHko ziklo bitan.

Udal agente generikoak

- Euskara Zerbitzua

Beste agente generiko batzuk

- \* Ortuellako Eskola Batzordea
- \* Otxartaga Herri ikastetxea
- \* San Felix ikastetxea
- \* Alkarbide

Adierazleak

- Banatutako eskola-agenden kopurua
- Erabiltzaileen tutoreen balorazioa
- Eskola-agendaren erabileraren gaineko eskolen balorazioa

Aurrekontua

700,78 €

**Esparrua**

**1.a - Irakaskuntza**

**Neurria**

**1.a.01 - Hizkuntza-politikaren arloan garatutako ekimenen eraginik aldekoena hezkuntza-arloan antzeman da, hain zuzen ere, EAEko eta Nafarroako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan. EAEn, irakaskuntza-sistemako B ereduaren eta bereziki D ereduaren onarpenari esker gertatu da euskararen areagotzea gazteen artean.**

**ESTRATEGIAK**

**SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA**

**Egitarau mota**

**A / C**

**4.Ekintza**

**“NAHI DUDALAKO” DBH4KO IKASLEEI ZUZENDUTAKO KANPAINA.**

Azalpena

Proiektu edo kanpaina honen helburua hau da: DBH 3 eta 4ko ikasleengan eragitea, derrigorrezko ikastaldia bukatuta, euskaraz ikasten jarrai dezaten. Kanpainaren diseinua eta erabili beharko diren euskarriak Alkarbideren A lan-mahaian erabaki dira, aurtengo kanpainaren diseinua ere KulturK2 enpresari egokitu zaiolarik, iazko moduan. Aurton, berrikuntza moduan kanpainaren sari-banaketaren ekitaldia antolatuko da lehenengoz.

Udal agente generikoak

- \* Euskara Zerbitzua



Beste agente generiko batzuk	<ul style="list-style-type: none"> <li>* Alkarbide</li> <li>* Ortuellako eskola batzordea</li> <li>* BHI-IES Ortuella eta San Felix ikastetxeak</li> <li>* KulturK2a</li> </ul>
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> <li>* Hartzaile-kopurua</li> <li>* D ereduan ikasten jarraituko duten ikasleen kopurua</li> </ul>
Aurrekontua	249,74 €

<b>Esparrua</b>	<b>1.a - Irakaskuntza</b>
<b>Neurria</b>	<b>1.a.03 - Egitarau zehatzak eratu eskolaz eskola, irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietako harreman-hizkuntza ere izateko, bai eta euskararekiko atxikimendua eta euskaraz bizitzen lagunduko duten ohiturak bultzatzeko ere.</b>

**ESTRATEGIAK** **IKASTARO BEREZIAK ANTOLATU ETA EUSKARRIAK ESKAINI**  
**Egitarau mota** **B**

**5. Ekintza** 1. a. 03/2 - Ikastetxeetan euskararen normalkuntza planak garatzeko laguntzak eskaini: **HEZITZAILEONTZAKO PRESTAKUNTZA-SAIOAK**

Azalpena Urtarrileko eskola-batzordearen bileran Urtxintxa Eskolaren “Abestu eta jolastu euskaraz” tailerraren proposamenari on iritzia eman eta gero, tailerra prestatzen hasi gara. Guztira ordu bat eta erdiko 3-4 egingo ditugu eguaztenetan udalerriko 3 ikastetxeotako hezitzaileok parte hartuz. Ikastetxeek tailerraren ikastetxe barneko transmisiorako konpromisoa hartu dute ikasitakoa ahalik eta ume gehienekin erabili ahal izateko.

Udal agente generikoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskara Zerbitzua</li> </ul>
Beste agente generiko batzuk	<ul style="list-style-type: none"> <li>* Alkarbide</li> <li>* Ortuellako eskola batzordea</li> <li>* Ikastetxeak</li> <li>* Urtxintxa eskola</li> </ul>
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parte-hartzaile kopurua.</li> <li>• Parte-hartzaileen asebetetze maila</li> <li>• Ikastetxeen eta eskola batzordearen balorazioak</li> </ul>
Aurrekontua	660 €

<b>Helburu nagusia</b>	<b>Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politika neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.</b>
<b>Helburu estrategikoa</b>	<b>1 - Euskara ondorengoetaratzea</b>
<b>Esparrua</b>	<b>1.b - Euskalduntze-alfabetatzea</b>
<b>Neurria</b>	<b>1.b.01 - Euskalduntze-alfabetatzeko ekintzabideak erabileraren ingurukoekin uztartu, eta arreta berezia jarri euskararen bizitasun etnolinguistikoa indartzeko ezinbestekoak diren gune geografikoetan, giza taldeetan eta gizarte-eremuetan, horiei lehentasun osoa eskainiz, ahalik eta eperik laburrenean, hizketarako gai diren euskaldunak</b>

lortzeko. Horretara heltzeko, efektu biderkatzailea izan dezaketen giza taldeak identifikatu behar dira, helburu zehatzei erantzuteko ikastaroak antolatu eta hasierako mailatik bukaerarainoko ikasketa-prozesu osoa hitzartu gizarteko hainbat eragile eta talderekin.

## **ESTRATEGIAK**

## **SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA ESKAINITZA SUSTATU**

Egitarau mota

B / C

### **6. Ekintza**

1. b. 01/5 - Atalase-maila (5. eta 6. mailak) gaindituta daukatenentzako eskaintza egokitua

1. b. 01/7 - Euskara ikasten ari direnak euskara erabiltzen motibatzea

### **BERBALAGUN (KUDEAKETA ETA DINAMIZAZIOA)**

Azalpena

Egitasmo honen helburu nagusia udalerriko euskal komunitatea trinkotzea eta hiztun tipoen optimizazioa bizkortzea da. Eta hori lortzeko, Ortuellako euskaldun helduen arteko informazio eta harreman sarea eraikitzeaz gain, euskararen erabileraren aldeko sentiberatze-kanpainak gauzatuko dira eta euskaraz egiteko guneak eskainiko dira euskara maila ertain edo altua duten herritar helduentzat. Guneok era bikoak izango dira: batetik, euskarazko tailerrak eta euskarazko aisi eta kultur jarduerak (ikus Aisia), eta bestetik, berbataldeak. Berbatalde bakoitzaren gehienezko berbalagun kopurua mugatzeari utziko diogu, azken urteotan zenbait berbalagun talde modu natural batean hazi eta gehienezko kopurua gainditu baitzen. Astero batuko dira, eurek erabakitako leku eta orduetan, nahi dituzten gai buruz berba egiteko edo gura dituzten jarduerak euskaraz egiteko. Talde bakoitzeko partaide bat gutxienez euskaldun osoa izango da, taldeak hizkuntz erreferente bat izan dezan. Izen ematea doakoa izango da.

Udal langileen talde batek ere parte hartuko du egitasmoan. Berbatalde honek honako beste helburu bi hauek izango ditu: erosio linguistikoari aurre egitea eta euren arteko hizkuntza ohituretan eragiten ahalegintzea. Talde honetan aurton udaleko 6 langilek hartuko dute parte. Orobat, 2. Talde bat sortzekotan gabilta, 4-5 langilek osatutakoa.

Azken urteotako bideari eutsi egingo diogu, eskualde mailako ikuspegiarekin, hau da, Meatzaldeko Berbalagun. Honek, zer esanik ez, ondorio jakinak dauzka: blog bakarra eskualde mailan, kultur agenda bateratua,...

Azkenik, egitasmoaren GURASOLAGUN aldaera lehenesten saiatuko gara, euskararen ondorengoetaratzearen ikuspegitik, talde hauek estrategikoak baitira guretzat. Iaz Urioste auzoko berbataldea abian jarri eta finkatu ostean (gurasook eta seme-alabok elkartzen dira barikuero egitasmoaren dinamizatzaileagaz), aurton Aiega auzoan honelako beste talde bat sortu dugu eta une honetan eskolen inplikazioa lantzen ari gara, berbatalde gehiago sortzeko asmoz.

Udal agente generikoak

- Euskara Zerbitzua
- Gizarte Zerbitzuak, Bulego Teknikoa Idazkaritza eta Kontuhartzaitza atalak
- Zenbait udal langile

Beste agente generiko batzuk

- \* Kriseilu Euskaltegia
- \* Udalerriko euskaltzaleak
- \* Meatzaldeko AEK
- \* AHIZE
- \* Eskualdeko Udal Euskaltegiak
- \* Muskizko eta Abanto-Zierbenako Euskara Zerbitzuak eta Trapagarango Udala.

Adierazleak

- Parte-hartzaile-kopurua
- Parte-hartzaileen gogobetetze inkesta

- Berbataldeetako dinamizatazaileen balorazioak
- Egitasmoari buruzko oroitidazkia

Aurrekontua 11.525 €

<b>Helburu estrategikoa</b>	<b>1 - Euskara ondorengoetaratzea</b>
<b>Esparrua</b>	<b>1.b - Euskalduntze-alfabetatzea</b>
<b>Neurria</b>	1.b.01 - Euskalduntze-alfabetatzeko ekintzabideak erabileraren ingurukoekin uztartu, eta arreta berezia jarri euskararen bizitasun etnolinguistikoa indartzeko ezinbestekoak diren gune geografikoetan, giza taldeetan eta gizarte-eremuetan, horiei lehentasun osoa eskainiz, ahalik eta eperik laburrenean, hizketarako gai diren euskaldunak lortzeko. Horretara heltzeko, efektu biderkatzailea izan dezaketen giza taldeak identifikatu behar dira, helburu zehatzei erantzuteko ikastaroak antolatu eta hasierako mailatik bukaerarainoko ikasketa-prozesu osoa hitzartu gizarteko hainbat eragile eta talderekin.

**ESTRATEGIAK**

**SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA  
ESKAINITZA SUSTATU**

**Egitarau mota**

**B**

**7. Ekintza**

1. b. 01/4 - Herritarren artean euskara ikastearen garrantziaz sentsibilizatzeko eta herrian euskara ikasteko dauden aukeren berri ematea  
**KRISEILU EUSKALTEGIAREN MATRIKULAZIO-KANPAINA INDARTZEA.**

**Azalpena**

Kriseilu euskaltegiarekin batera prestatuta, iraileko matrikulazio kanpainan zehar udalerriko etxebizitzetan banatu ohi den esku-orrian udalak herritarrak euskara ikastera animatzeaz gain, euskara ikasten duten ikasleentzat banatzen dituen diru-laguntzen berri emango zaie.

**Udal agente generikoak**

- \* Alkatetza
- \* Euskara Zerbitzua

**Beste agente generiko batzuk**

- Kriseilu Euskaltegia
- Meatzaldeko AEK

**Adierazleak**

- Hartzaile-kopurua
- Euskaltegiko matrikula-kopurua
- Matrikulazioaren bilakaera

Aurrekontua 500 €

<b>Helburu estrategikoa</b>	<b>1 - Euskara ondorengoetaratzea</b>
<b>Esparrua</b>	<b>1.b - Euskalduntze-alfabetatzea</b>
<b>Neurria</b>	1.b.01 - Euskalduntze-alfabetatzeko ekintzabideak erabileraren ingurukoekin uztartu, eta arreta berezia jarri euskararen bizitasun etnolinguistikoa indartzeko ezinbestekoak diren gune geografikoetan, giza taldeetan eta gizarte-eremuetan, horiei lehentasun osoa eskainiz, ahalik eta eperik laburrenean, hizketarako gai diren euskaldunak lortzeko. Horretara heltzeko, efektu biderkatzailea izan dezaketen giza taldeak identifikatu behar dira, helburu zehatzei erantzuteko ikastaroak antolatu eta hasierako mailatik bukaerarainoko ikasketa-prozesu osoa hitzartu gizarteko hainbat eragile eta talderekin.

**ESTRATEGIAK****LAGUNTZA EKONOMIKOA ESKAINI  
KOMUNIKAZIOA****Egitarau mota****B eta D**

1. b. 01/3 - Baldintza minimo batzuk betetzearen truke diru-laguntzak eskaini

**8. Ekintza****EUSKARA IKASLEENTZAKO UDAL DIRU-LAGUNTZAK**

## Azalpena

Ortuellako Udalak, indarrean dauden udal ordenantzek ezarritakoari jarraikiz, 12/13 ikasturtean euskara ikasten ari diren ortuellarrak diruz lagunduko ditu, ordenantzek ezarritako baldintzak betez gero. 2009tik hona igarri dugu krisialdiak matrikulatutako ikasle kopuruan eragin nabarmena izan duela. Izan ere, aurreko urteetako eskabide kopuruarekin alderatuta, ia hirukoiztu egin da azken hiru urte hauetan.

Ikasturte osoa amaitu eta ondoko hogeitau egunetan, urriaren 1etik 20ra bitartean, hain zuzen ere, udalerriko euskara ikasleei epea zabalduko zaie Udalaren diru-laguntzak eskatzeko.

Diru-laguntza hauek eskuratu ahal izateko, Ortuellan erroldaturik egoteaz gain, herritarrek HABEk euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak emateko homologatu edo onartu duen euskaltegi edo zentro batean ikasi behar dute, eskolorduen %80 gutxienez hartu behar dituzte eta atarramentu ona frogatu. Bai ikasleek jaso ditzaketan bi diru-laguntza moten zenbatekoak, bai ekarri behar dituzten agiriak, zehazturik ageri dira 2008ko irailaren 25eko osoko bilkuran onartu eta 2008ko azaroaren 14ko BAOan argitaratu zen udal ordenantzan.

Urte honetan ordenantza hauek berriro beharko genituzke, gehieneko zenbatekoak egokituz (izan ere, azken urteotan matrikula prezioa garestitu egin da eta) eta izapidetzerakoan indarreango ordenantzek eragiten dituzten eragozpenak ezabatuz.

## Udal agente generikoak

- Euskara Zerbitzua
- Kontu-hartzaitza
- Idazkaritza

## Adierazleak

- \* Eskabide kopurua
- \* Eskabideen kopuruaren bilakaera
- \* Banatutako diru-kopurua

## Aurrekontua

9.000 €

**Helburu nagusia**

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.

**Helburu estrategikoa**

**1 - Euskara ondorengoetaratzea**

**Esparrua**

**1.c - Familia**

**Neurria**

1.c.01 - Euskararen familia bidezko jarraipenari ekiteko, bi gune nagusitan egin behar da indar: gazteengan, bikote-hizkuntza finkatzeari begira, eta familia osatu berriengan, haurren lehen hizkuntza ziurtatzeari begira. Horretarako, jarraipenean zuzeneko eragina (gurasoak, gurasogaiak, haurrak) nahiz zeharkakoa (haurtzaindegiak, zaindariak, ...) dutenak sentiberatzeko eta eskolaratzeko ekintzak behar dira; halaber, euskaraz egiteko zerbitzuak, guneak eta aukerak eskaini behar zaizkie, xede-talde bakoitzari mezu eta ekintza zehatzak proposatuz.

**ESTRATEGIA**  
**Egitarau mota**

**SENTSIBILIZAZIOA**  
**A/B/C**

**9. Ekintza**

1. c. 01/7 - Familia osatu berria duten bikote euskaldunetan bai hurrekin eta bai elkarren artean ere erabilera sustatzeari begirako jarduerak
1. c. 01/12 - Haur jaioberrien gurasoentzat euskararekiko sentiberatzeko egitasmoak (bildumak: ipuinak, kantuak,... )

**FAMILIA-TRANSMISIO KANPAINA HAUR JAIOPERRIEN GURASOEL**

Deskribapena

Alkarbideren lan-mahaian prestatutako kanpaina (EMAN GILTZA!) ere bideratuko dugu jaioberrien gurasoei tarjetoia bidaliko diegularik, sortutako webgunera berbideratzeko asmoz. Bertan, hurrekin erabil ditzaketen euskarri pila daukate. Aurtengo kanpainaren berrikuntza nagusia publizitateari emango zaion garrantzia da. Izan ere, propio prestatutako iragarkia hainbatetan azalduko da hedabideetan.

Bestalde, transmisio kanpainan lehen erabiltzen genituen euskarri batzuk ere (ku-ku gida berri eta egokitua, adur-zapia, haur kanta CDa,...) berreskuratu eta tutoreei banatuko dizkiegu.

Udal agente generikoak

- \* Idazkaritza
- \* Alkatetza
- \* Euskara Zerbitzua
- \* Udal erregistroa

Udal agente  
espezifikokoak  
Adierazleak

- Hartzaile-kopurua
- Euskaltegian matrikulatutako guraso berriak

Aurrekontua

700 €

<b>Helburu nagusia</b>	Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.
<b>Helburu estrategikoa</b>	<b>2 - Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza</b>
<b>Esparrua</b>	<b>2.a - Administrazioa</b>
<b>Neurria</b>	2.a.01 - Euskara administrazioaren zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatu, batik bat osasun-zerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia-administrazioan. Era berean, lan-hizkuntza ere izan dadin egitasmoak abian jarri. Estatuko administrazioako erakundeetan eta, bereziki, Justiziakoetan ere euskararen erabilera sustatzeko plangintza zehatzak martxan jarri.

**ESTRATEGIAK**  
**EGITARAU MOTA**

**IKASTARO BEREZIAK ANTOLATU ETA EUSKARRIAK ESKAINI**  
**G**

**10. Ekintza**

2. a. 01/3 - Euskaraz lan egiteko langileak behar dituen baliabideak (sareko hiztegiak, ohiko dokumentu ereduak, teknologi berriek eskaintzen dituzten

aukerak eta baliabideak kontuan hartzea) eskaini.

## **LANGILEONTZAKO TREBAKUNTZA SAIOAK**

Azalpena	<p>2008an euskara plana diseinatu eta onartu ondoren, eta 2009an hainbat aurrerapauso (lanpostu-zerrendan derrigortasun-datak eguneratu, hizkuntza irizpideen gida landu eta 2010ean onartu, udal langileentzako trebakuntza-saioak antolatu eta gauzatu, eguneroko zereginetan idatziz eta ahoz euskaraz lan egiteko euskarrien bilduma, komunikazio-planaren barnean herritarrei zuzendutako esku-orria plazaratu, ...) eman ostean, azken urteotan eten nabaria suertatu da.</p> <p>2013an, batetik, udaleko langileek osatutako euskara batzordea berpizten saiatuko gara (egungo euskara plana baloratu eta plangintzaldi berriari dagokiona diseinatzeko) eta udaleko langileentzako trebakuntza saioak diseinatu, antolatu eta gauzatuko ditugu. Batetik, barne eskaria dagoela sumatu dugu (euskara maila ertaina duten zenbait langilek eskatu dute) eta, bestetik, krisialdi garaiak aukera berriak ere sortu ditu (izan ere, ekintza batzuetarako askoz diru gutxiago egongo denez, euskara teknikariak lanordu gehiago eskaini ahalko dio zeregin honi).</p>
Udal agente generikoak	<ul style="list-style-type: none"><li>* Euskara Zerbitzua</li><li>* Udaleko langileek osatutako Euskara Batzordea</li><li>* Sail guztiak</li></ul>
Udal agente espezifikokoak	<ul style="list-style-type: none"><li>* Udalbatza</li><li>* Udal langileen ordezkariak</li></ul>
Beste agente generiko batzuk	<ul style="list-style-type: none"><li>* Eusko Jaurlaritzaren HPS</li><li>* Artez Euskara Zerbitzua</li><li>* Elhuyar Ahokularitza</li></ul>
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none"><li>• Antolatuko diren motibazio eta trebakuntza saioen kopurua</li><li>• Berorietan parte hartuko dutenen kopurua eta gogobetetze maila</li></ul>
Aurrekontua	1.000 €

<b>Helburu estrategikoa</b>	<b>2 - Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza</b>
<b>Esparrua</b>	<b>2.e - Aisia</b>
<b>Neurria</b>	<b>2.e.03 - Euskararen aldeko ekintza soilen ordeztu, inguru hezitzailean eskaini aisialdi-zerbitzuak: herria, nortasuna, herri-kidetasuna, kondaira eta hizkuntza elkartuz, alegia.</b>

**Egitarau mota** A / B

**11. Ekintza** **BERBALAGUN EGITASMOA: TAILERRAK ETA JARDUERA OSAGARRIAK GAZTE ETA HELDUENTZAT.**

**Deskripzioa** Berbalagun egitasmoaren osagarri, euskaraz egiteko guneak eskainiko dira euskara maila ertain edo altua duten herritar heldu guztientzat. Berbataldeez gain, gune horiek euskarazko tailerrak eta aisi eta kultur ekintzak izango dira:

1) Tailerrak: Ikasturte barruan, euskarazko bizpahiru tailer edo ikastaro labur eskainiko dira. Ikastaroen aukeraketa egiterakoan, aintzat hartuko dira parte hartu nahi duten herritarren eskaerak. Dena den, familia osoari zuzendutakoak lehenetsiko ditugu, batetik, GURASOLAGUN egitasmoa indartu guran eta azken urte biotako tailerrek izandako arrakasta ikusita eta eskaera egon badagoela ohartuta.

2) Aisi eta kultur jarduerak: Lantzean behin Berbalagunen erakunde eragileek kultur

ekitaldi bat edo aisialdiko ekintza bat gertatu eta gauzatuko dute modu koordinatu eta bateratuan. Jarduera hauek gazte eta heldu euskaldunei zuzenduko zaizkie eta Meatzaldeko Berbalagun Agendan eta blogean iragarriko dira.

Udal agente generikoak \* Euskara Zerbitzua

Beste agente generiko batzuk \* Kriseilu euskaltegia  
\* Meatzaldeko Berbalagun Jarraipen Batzordea  
\* OGA (Ortuellako Gazte Asanblada)  
\* LURGAZTE eskautak

Adierazleak

- Antolatutako tailer eta jardueren kopurua
- Aurrekoetan parte hartuko dutenen kopurua

Aurrekontua 2.000 €

<b>Helburu estrategikoa</b>	<b>2 - Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza</b>
<b>Esparrua</b>	<b>2.e - Aisia</b>
<b>Neurria</b>	2. e. 03 - Euskararen aldeko ekintza soilen ordeztu, inguru hezitzailean eskaini aisialdi-zerbitzuak: herria, nortasuna, herri-kidetasuna, kondaira eta hizkuntza elkartuz, alegia.

#### ESTRATEGIAK

**Egitarau mota**  
**12. EKINTZA**  
**(ekintza-multzoa)**

#### EKITALDIAK ANTOLATU ESKAINITZA SUSTATU

A  
2. e. 03/1 - Jolasaren ildoko ekintzak euskaraz antolatu  
2. e. 03/6 – Aste Santuan eta Udan euskaraz antolatzen diren ekintzak indartu  
2. e. 03/4 - Irteerak euskaraz antolatu

#### UDALEKU IREKIAK

Azalpena

Ortuellako Euskara Zerbitzuak udalekuak antolatuko ditu ekainaren azken astean (ekainaren 24tik aurrera) eta uztailean HH 4-5 eta LHko 1-6 mailetan ikasten ari diren udalerriko ume guztientzat. Jarduerak goizetan egingo dira, hiru ordu eta erdiz, ordu erdiko atsedenaldi bat tartean, hamaiketako egiteko. Umeei joko eta jolasak, tailerrak, kirolak, txangoak (biak egun osokoak autobusez), igerilekuetara joan eta enparauak egingo dituzte egunero. Halaber, jantokia eskainiko da eta interesatuta dauden gurasoei begira, arratsaldeko txanda ere. Jarraian proiektu honen helburuak eta ezaugarri nagusiak azalduko ditugu:

#### ➤ **Udalekuen helburuak:**

1. Ume eta gaztetxoek euskara maila optimizatzea, ahozketasunean batik batik, eta hizkera ezformalaren esamolde eta berbekin euren hizkera osatuz eta aberastuz.
2. Ortuellako eskola-umeen euskararen aurreko ikuskeran eta motibazioan eragitea, euren euskara-gela dikotomia kolokan jarri eta euskara bizitzaren arlo ezformalaren (dibertimendu, jolas eta azken batean, aisialdirako) ere hizkuntza baliagarria dela erakutsiz.
3. Eskolako oporraldi garaian ikasleei gertatu ohi zaien komunikazio-gaitasunaren apaltzeari aurre egitea.
4. Ortuellako ume eta gaztetxoek hizkuntz ohituretan eragitea, gune, aukerak, ohiturak eta euren arteko harremanak euskaraz sustatuz.

5. Gurasoei lana eta familia uztartzeko aukerak ematea, umeen oporraldiaren garaian.
6. Udalekuen ostean begirale izandakoen eta parte hartutako umeen artean euskarazko harreman naturalak sustatzea.

➤ **Egitarauaren ezaugarriak:**

- Herri barrukoak edo irekiak izango dira.
- **Euskaraz** gauzatuko dira.
- Hartzailleak : Haur Hezkuntza 2. eta 3. mailako eta Lehen Hezkuntzako ume eta gaztetxoak, D ereduan ikasten dutenak.
- Ekainaren 25etik uztailearen 27ra arte garatuko dira.
- Ordutegia: aukerakoa izango da, gurasoen beharrei egokitutakoak. Goizez: 9:30etik 13:30era bitartekoa izango da. Sarreran ordu erdiko malgutasuna egongo da. Arratsaldeaz: 14:30etik 16:30era.
- Jantoki zerbitzua eskainiko da.
- Umeen gehieneko kopuruak honakoak izango dira: 30 ume ekaineko astean eta 90 ume uztaileko hamabostaldi bakoitzean. Uztaileko arratsaldeko txandan, gehienez umeen herenak baino ezingo du parte hartu. Beraz, plazak mugatuak izango dira eta eskaerak onartzeko izen-ematearen arabera ordena hartuko da kontuan.
- Ekaineko astean Otxartaga eskolan eta uztaileko txandan BHI-IESen egingo dira.
- Programazioan ondoko hauek kontuan hartuko dira: jokoak, jolasak (hizkera ezformala eta ahozotasuna landuz era ludiko batean), kantak, tailerrak, kirolak, jaiak, igerilekuetara joatea eta egun osoko txango bi uztailean.
- Goiz erdian, 11:30ak aldera, hamaiketako eskainiko zaie ume-gaztetxoei.
- Umeak adin tarteka banatu egingo dira.

Udal agente generikoak	*Euskara Zerbitzua *Kultura, kirol eta gazteri Saila *Idazkaritza
Udal agente espezifikokoak	*Gizarte zerbitzuak
Beste agente espezifikoko batzuk	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aisialdi enpresak</li> <li>• Herriko aisialdi begiraleak</li> </ul>
Adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parte-hartzaileen kopurua</li> <li>• Balorazio-inkestaren emaitzak (gurasoek bete beharrekoa)</li> <li>• Enpresa esleipendunaren memoria eta balorazioa</li> </ul>
Aurrekontua	25.200€

**Helburu nagusia** Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.

**Helburu estrategikoa** 2 - Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza

**Esparrua** 2.e - Aisia

**Neurria** 2.e.01 - Aisialdian lanean diharduten talde indartsuekin (parrokiak, eskautak eta



